



Zumba saioa, Morlans jai giroan dantza dadin

Badatuz Morlansko jaiak, eta faroltxoak piztu eta txupina botatzearekin batera lehertuko da festa auzoan, hilaren 17an. Iazko egitaraua aldatu, eta jai batzordeak dantzan ikusi nahi ditu auzotarrak, bai zumba egiten eta baita txarangaren erritmora eztarriak freskatzeko ere.

T&A Sara Ibarburen Etxeberria

Jai batzordean gazte gehiago sartu dira, eta taldea handituta, lortu dute aurten ere jaietako egitarau txukun bat prestatzea Morlansen. Hilaren 17tik 19ra, hiru eguneko egitarau oparoa programatu dute, eta adin guztietako jendearentzako jarduerarik ez da faltatuko auzoan.

Ostiral arratsaldean txokolate janarekin eta mago baten ikuskizunarekin hasiko dira motorrak berotzen, baina ohi-turak agintzen duen eran, faroltxoaren piztearekin emango diete hasiera Morlansko jaiari. Jai batzordeko Asier Aguilark kideak (Morlans, 2004) eman dizki-

gu azalpenak: «Morlans Zaharretik behera kalejira bat egingo dugu Leire plazaraino, trikiti eta pandero doinuek lagunduta. Ondoren, faroltxoak piztuko dugu plazan, eta horrela emango diegu hasiera jaiari».

Talde feministari aitortza

Faroltxoak piztearekin batera, txupinazioa ere jaurtikiko dute, eta aurtengoan, auzoko talde feminista arduratuko da hortaz. «Urtero pertsona edo talde desberdin batetik botatzen du txupinazioa, eta aurten erabaki dugu auzoko talde feminista izatea. 2013tik auzoan egin duten lan guz-

tiagatik eta orain arte egin duten ibilbideagatik omenaldi txiki hau egin nahi diegu», adierazi du Aguilarek.

Jai lehertzen denean, urteroko legez, sardina jana, herri bazkaria, buruhandiak, sagardo eguna eta apar festa izango dituzte beste hainbat jardueren artean. Berritasunei dagokienez, iaz, yoga eta poteo elegantea programatu zituzten lehenengoz, baina aurten, aldatketak egin dituztela adierazi du jai batzordeko kideak: «Larunbat goizean, zumba klasea izango dugu, ostiraleko ajea pasatzeko. Izan ere, jai batzordeko kide bat zumbako irakaslea da, eta klasea ematera etorriko da. Eta zumbaren ostean, poteoa txarangarekin egingo dugu, bazkaria baino lehen». Herri bazkarirako tiketak gaur jarriko dituzte salgai, bukatzen diren arte.

DJ-a eta rock kontzertuak

Ostiral gauean DJ saioa izango da jaietan, eta larunbatean, ohiturari jarraituz, rock kontzertuak antolatu dituzte Morlansen. 23:00etan hasita, Jhon Dealer & Coconuts, Stupid Fucking People eta Hyronika taldeak igoko dira oholtzara. 02:00etatik aurrera, rock musikaz gozatzeko jarraitzeko aukera izango da txosnan.

Egitaraua

MAIATZAK 17, OSTIRALA

16:45ean:

Txokolate jana.

17:00etan:

Magoa.

18:30ean:

Faroltxoak piztea eta txupinazoa buruhandiek.

18:45ean:

Diskofesta.

20:30ean:

Sardina jana.

23:30ean:

DJ-a.

02:00etan:

Musika txosnan.

14:30ean:

Herri bazkaria.

17:00etan:

Musa eta bingoa.

18:00etan:

Buruhandiak eta dantzagarriak.

19:00etan:

Auzoen arteko olinpiadak.

21:00etan:

Parrillada.

23:00etan:

Jhon Dealer & Coconuts, Stupid Fucking People eta Hyronika.

02:00etan:

Rocka txosnan.

MAIATZAK 19, IGANDEA

11:00etan:

Bizikleta lasterketa.

12:00etan:

Sagardo dastaketa, plaza dantzak eta toka.

14:00etan:

Gazte makarroi jana.

14:30ean:

Bazkari autogestionatua.

16:30ean:

Apar festa.

18:00etan:

Jaiaren amaiera.



Urrats
euskaltegia



Ondo pasa Morlansko jaietan!

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia



MAIATZAK 18, LARUNBATA

08:45ean:

Diana.

11:00etan:

Zumba.

11:30ean:

3x3 basket Askatuak.

12:00etan:

Lagunartean kozinatzen.

Vermuteke Gautxori txarangarekin.



Ondo pasa jaietan!

Leire plaza, 3, behe, 20009 Donostia - Tel.: 943-90 63 89